

## Ametsa

- Gaur amets arraro bat izan dut, Olatz. Protagonista ni nintzen, baina ez nintzen ni.
- Nola? Ez dut ezer ulertzen. Zu zinen ala ez zinen zu?
- Bai, bai, ni nintzen; ni nintzen, baina itxura aldatuta... buruhandia eta sudurluzea nintzen.
- Kar-kar... Zer ona!
- Oso txikia nintzen, oso-oso txikia eta biboteduna.
- A zer amesgaiztoa, motel!
- Eta ez hori bakarrik! Burusoila nintzen.
- Kar-kar! Zer pena ez dudala ikusi!
- Eta zu ere agertzen zinen.
- Ni? Eta ni nintzen edo ez nintzen ni?
- Ba, ez, ez zinen zu. Munstro bat zinen, ilehoria eta bizkarzabala zinen, altu-altua.
- Tira, ez naiz oso polita, baina munstro bat...
- Eta munstro begibakarra zinen!
- Ai ama! Zer egin dizut nik horrelako ametsa izateko?
- Ba, ez dakit, baina nire atzetik zenbiltzan korrika. A zer beldurra!
- Bai, bai, ez naiz harritzen!
- Bat-batean zarata bat entzun dut eta esnatu egin naiz, eskerrak! Gero, ez dut begirik bildu! Arratsaldean siesta egin beharko dut.
- Bai, hobe duzu!